

Tabernaren epelean hilero puntuka

KABIGORRI

HILABETEKO lehen ostegunean, hitzordua du Bidasoaldeko bertsozaleak: lagun giroan, eserita nahiz zutik, barraren aldamenen edo mahaian jesarrita, ordu eta erdi inguruko saioaz goza dezake Kabigorri tabernan (Irungo Mosku auzoan). Barreak, txaloak, garagar-do tragoak eta doinu arin nahiz sakonak nagusi dira hilero, taberna eta aldi berean ateneoa den gunean. Azpiegitura egokia du Kabigorrik, jarduera anitz antolatzena ohituta baitago, eta horregatik jo zuten horra Irunabar bertso elkarteak kideek; horregatik, eta kalea, taberna, bazkal-afalostea, delako bertsoen toki naturala, euren aburuz. Afariaren truke abesten dute bertsolariek. Helburua, plaza handietan aritzen ez den jendeari aukera ematea. Eta bide batez, Irunen euskarari tokia egitea, euskal (g)uneak sortzea.

Joan den irailean abiatu zuten ekimena eta harrera ezin hobea izan du, lehenengo saiotik bete zen Kabigorri. Egoitz Zelaia Irunabar elkarteak kidearen esanetan, arrakasta oreka mantentzean omen datza, zentzu guztietan. Izen ezagunagoak eta ez hain ezagunak ekartzen dituzte, funtsezko baldintza bat abiapuntu: etxeko bertsolaria izatea, gertukoa. Hots, Bidasoaldekoa edo, hurbil egonik harreman naturala duten Bortzirietakoa, Oarsoaldekoa edo Lapurdikoa (bertan bizi edo bertako bertso-eskoletan arituak). Lau bertsolarik osatutako saioak egin dituzte oraingoz eta gutxienez bat emakumezkoa izatea ere irizpide dute (kopuruz, bailaran gehiago dira bertsotan dabilzan gizonezkoak). Saioetako protagonismoa lauen artean banatzea da beste helburua, denek uneren bat izan dezatela luzitzeko, eta “ez dadi-la saio arruntetan gertatu ohi den moduan batengan edo birengan zentralizatu”, dio Zelaia. Hala, azpada da haientzat: “Hasierako paniko eszenikoa gaindituta, ongi aritzen dira, Irunabarreko kideek



badutelako maila, baina ez daude ohituta jendaurrean kantatzera. Inguruko herrietako bertsolarientzat ere aukera ederra da, beste publiko baten aurrean norbere burua neurtzeko. Gainera, oso plaza polita da Kabigorri”.

Orain arte kantari entzun ditugu, besteak beste, Urko Casado, Julen Zelaia, Alaia Martin, Eneritz Zabaleta, Manu Goigogana, Ioar Tainta, Haritz Casabal, Beñat eta Unai Gaztelumendi, Maddiane Txoperena, Odei Barroso edo Gotzon Aizpiolea. Etortzekoak dira Aitzol Barandiaran, Arkaitz Oiartzabal Xamoa, Amaia Elizagoien, Iñigo Ugarte, Miren Artetxe, Jokin Uranga, Manolo Arozena, Aitor Errazkin...

Lauzpabost urtez jarraitu nahiko lukete saiookin, belaunaldi gazteagoek ere gerora parte har dezaten. Erronka izango dute aurrean, Kabigorriko entzulea berezia dela baitio Zelaia: teknikari ez dio hainbeste-ko garrantzirik ematen, mezuari baizik, “artifizialtasunetik harago egiazkotasuna bilatzea eskatzen dio bertsolariari, eta jolas horretan sar-

tzen zarenean saioa lehertzen dela ikustea gauza handia da”.

‘Gure berts(i)oa, irundarrak bertso kantari’

Duela sei urte jaio zen Irunabar Irungo Bertsoaren Bilgunea. Egun, 20 bat kide dabilta (buru-belarri, zazpi laguneko taldea), hirian eta eskualdean bertso mugimendua dinamizatzen eta zaletasuna sustatzen. Irunabarren gestiopean, hiru bertso-eskola daude Txingudin eta beste hiru ere gidatzen dituzte, Irungo ikastetxeetan. Zahar-etxeetan ere aritzen dira kantari, bloga daukate (irunabar.wordpress.com) eta Bertso Eguna antolatzen dute udaran. Diskoa atera berri dute gainera, *Gure berts(i)oa, irundarrak bertso kantari*. Hiriko bertso ondarea berreskuratzeko asmoz, iraganeko eta egungo bertsoak musikatu dituzte. 50 bat lagunaren parte-hartzetik sortutako diskoan, guztira 14 pieza aurkituko dituzu.

Mikel Garcia
Idiakez

